



EBAZPENA, 2020ko otsailaren 3koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioan epaimahaiaren egoitza ezartzen duena (lehiaketa-oposizioak Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez deitu zen)

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren (EHAA, 2019ko azaroaren 26a) bidez lehiaketa-oposiziorako deia deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegora sartzeko.

Aipatutako Aginduaren 6. atalak ezartzen du parte-hartzaileek oposizio-aldian egin beharreko probak. Eta zehazki, oinarriaren 4. atalak ezartzen du Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez zehaztuko dela epaimahaiaren egoitza.

Horren arabera,

EBATZI DUT

1.– Honakoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioan epaimahaiaren egoitza (lehiaketa-oposizioak Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez deitu zen):

CIFP Politécnico EASO LHII
Aitzol parkea, 2.
20011 Donostia (Gipuzkoa)

2.– Ebazpen hau Hezkuntza Saileko Interneteko helbide hauetan argitaratuko da:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «2019ko EPE. Hezkuntza Ikuskaritza» - «Berriak».
- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-langileak/> - 2019ko EPE. Hezkuntza Ikuskaritza» - «Epaimahaiak».

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 3an

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON AGIRRE HUERGA